

LANBIDE: ANTOLAMENDUAREN ANABASA, GIZARTEARENTZAKO IRUZURRA ETA KUDEAKETA IRIOLEA

LANBIDEren egoera gero eta txarragoa da, okerragora doa egunetik egunera. Zuzendaritzaren eraginkortasunik eza ikusita, zerbitzuaren egoera kezkagarriaren berri eman genion aspalditxotik Zabaleta sailburu andreari, bulego-zuzendarien kopuru handi samarrak egin zuen bezalaxe; baina okerrak zuzendu beharrean, behin eta berriz errepikatzen dira.

ANTOLAMENDUAREN ANABASA

Lehengo zuzenbide pribatuko ente publikoa deuseztatu zenetik lau hilabete igaro dira, eta oraindik **erakunde autonomo berriak ez du ez egitura-aurik, ezta antolamendu-aurik ere.**

- ◆ Ez dira onetsi erakunde autonomoaren estatutuak (aurreko erakundearenak indargabeturik geratu ziren).
- ◆ Ez du egitura organikorik, ezta funtzionalik ere.
- ◆ Ez du antolamendu eta barne-jardunaren arautegirik.
- ◆ Lanpostuen zerrenda onesteko agindua ez da oraindik bete.

Haiek berek sortutako nahastea dela-eta, **diskriminazio-kasuak** biderkatu dira.

- ◆ **Postuak hornitzean:** Postuak hornitzeko bidean ez zaie aukera zabalik ematen langileei aurkeztu ahal izateko; eta beraz gaitasun, publizitate eta merezimendu printzipioak urratzen dira.
- ◆ **Soldatetan:** Lan berdinak kategoria desberdinetako langileek egiten dituzte.
- ◆ **Prestakuntzan:** Plantilla osoari ez zaio prestakuntza-ikastaroen berri ematen; eta txiripaz jakin eta eskatu duten langileei ukatzen zaie joateko aukera.
- ◆ **Kontratazioan:** Erabili diren kontratazio-motak askotarikoak izan dira, zorizko eran hautatuak. Kontratu horietako batzuk laster batean iraungiko dira, eta langileek ez dakite gero zer gertatuko den. Bulegoetako arduradunek ere ez dakite nolatan aterako den lana aurrera.
- ◆ **Lanaldia zehaztean:** Zerbitzuaren beharrianak kontuan hartu gabe, aldi baterako langileei beti, eta beste batzuei zenbaitetan, ukatu zaie lanaldi jarraitua hartzeko aukera.
- ◆ **Nomina prestatzean:** Errakuntzak sarri-sarri agertzen dira nomina-agirietan.

GIZARTEARENTZAKO IRUZURRA

LANBIDEk ez die ikastarorik eskaintzen langabeei (ekintzaileentzako ikastaroak izan ezik, 328 Dekretuarenak). Aurten ikastaroen eskaintza aurreko urteetakoa baino askoz urriagoa da, eta oraindik ez da bat bera ere eman. Horri buruz ere azalpenik ematen ez denez, ez dakigu antolamendu-arazoengatik den edo altxortegi-arazoengatik.

Autonomoen aldeko diru-laguntzak etenda daude abuztutik hona. Autonomo horietako askoren proiektuen bideragarritasuna, hastapenetan dabiltzanez, diru-laguntza horren menpean zegoen; beldur gara, beraz, baten batek ez ote duen porrot egin laguntza hori eten izanagatik. Era berean, ez diete ordaintzen ez Enpleguaren Zentro Bereziei, ez laneratze-enpresei, ez eta oro har enplegua sustatzeko edozein diru-laguntzaren jasotzaileei ere.

Gainera, jardute-jarraibiderik ez dagoenez, **erabiltzaileak gero eta haserretuago eta amorratuago daude.**

Hori guztia haztegi ezin egokiagoa da egoera lardaskatuak, bortizkeriaren hurrenak, sortzeko; enplegu-bulegoetako langileek aurrez aurre jasan behar dituztenak.

ESKANDALUZKO KUDEAKETA

-TELEFONIA Zuzenbide pribatuko erakunde publikoa abiatu zenean, besteak beste, **200.000 eurotik gorako inbertsioa egin zen telefono-lineak jartzeko**. Erakunde autonomo bihurtu ondoren, Eusko Jaurlaritzak diru hori guztia bota eta **beste gastu bat, 360.000 €-koa**, egin nahi du, erabat alferrekoa, **“beren lineak” —haiek diotenez— ezartzeko**.

-DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA Diru-sarrerak bermatzeko Errentaren kudeaketa uste izatekoaren azpitik dago, ez baitie LANBIDEk erantzun eskariei hainbat hilabetetatik hona: ordaindu ez izanagatik erreklamazioak egon dira, etenaldiak eta abar luze bat. Alde batetik, enplegu-bulegoetako Zuzendaritzak duen irizpide falta; **eta bestetik, benetan ez dabilen aplikazio informatikoa, nahiko eragozpenak badira diru-sarrerak bermatzeko errentaren izapidetze osoa burutu ahal izateko**.

INDRA enpresak egindako sistema informatikoa ez dabil, 3.000.000 €-ko kostua izan badu ere. LANBIDEk erabaki duen konponbidea zera da: INDRA enpresak berak kudeatzea milaka espediente atzeratuak.

-ORIENTABIDEA LANBIDEk, bestalde, **erabiltzaileen enplegarritasuna azpikontratatzeko erabaki du; oraingo honetan RANDSTAD enplegu-agentzia pribatuarekin**. Beste diru-mordo bat xahutuko du horretan, nahiz eta LANBIDEko langileak ezin hobeto kualifikaturik egon zerbitzu hori ere emateko. Erabaki horren zioak ere ez dira jakitera eman.

Gure ustez, **horrela abegia eman zaie enplegu-agentzia pribatuei**, zeren beldur gara gobernuaren asmoak ez ote diren **orientabide-zerbitzuak oro har horrelako agentziei azpikontratatzeko**. Enplegu Zerbitzu Publikoa pribatizatzeke lehen pausoa izan da. Eta horren ondorioz **LANBIDEko lanpostu publikoak desagertzeko zorian geratuko dira**.

-PATRONALAREN ETA SINDIKATUEN ALDEKO DIRU-LAGUNTZA Hori gutxi bailitzan, **LANBIDEk 4.000.000 € banatu ditu CONFEBASKen, CCOOen eta UGTren artean**. Administrazio Kontseiluan egindako “lan bikaina”gatik izango ote? Ikusi besterik ez dago aurreko pasarteetan kontatu duguna.

ELAtik burugabekeria horiek guztiak salatzen ditugu. Eta, orobat, **ESKATZEN DUGU:**

1. **Lanpostuen Zerrenda berehala egitea**, publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatuz, **erakundeko postu guztiak betetzarren**, eta bertako langileei egonkortasuna ematearren.
2. **Lehen aipaturiko zerbitzuen azpikontratazioa saihestea, eta ahal dela deuseztatzea**. Eta, aldiz, plantilla behar den neurrikoa izateraino handitzea, diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatu ahal izateko, eta lan-eskatzzaileen orientabidea eramateko. Hori horrela egin ezean, goitik behera urratuko dira Mahai Orokorraren eta Sektore Mahaiaren akordioak (“Akordioa indarrean sartu eta berehala Administrazioak bere egingo du jarduera gehiago kanpora ez ateratzeko konpromisoa...” 2009ko azaroaren 18ko Mahai Orokorraren Akordioa); eta gainera, informazio pertsonal ugaria enpresa pribatuen eskuetan utziko da, eta arazoaren eragile izan direnak arazoaren onuradun bihurtuko dira.
3. **Langabeentzako ikastaroak abian jartzea**.
4. **Enplegua sustatzeko programak eta laguntzak berehala abiaraztea**.
5. **Antolamendu- eta kudeaketa-anabasa premia osoz zuzentzea**. Sistema informatikoa zuzenketa horren barruan sartuko da, noski; eta enpresa instalatzaileari erantzukizunak eskatuko zaizkio, hala balegokio.

Gure iritziz **Zuzendaritza politikoak** ez du egoera negargarri hori iraultzeko borondaterik; horregatik, **dei egiten diegu LANBIDEko langileei Gobernua hertsatzeko, eta dagokion ardura har dezan, LANBIDEren antolamendua eta kudeaketa onbideratzeko, denontzako premia larria baita**. Horretarako daukagun tresna bakarra **mobilizazioa** da.

Martxoaren 29an, Greba Orokorrari atxikiz, gure lehenengo aukera izango da, LANBIDEn dugun etsipena adierazteko.

Horren ostean gure mobilizazio-plana prestatu behar dugu, LANBIDE egoera tamalgarri horretatik behingoz ateratzeko.